

EUSKAL POETA BAT MAZEDONIAN

Ainara Maia Urrotz



Mugaldekook ez dakigu segur

non dagoen muga

bestehitzak
||| |

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



otherwords
||| |

Uda berri bat iratzarri da
berri-berria
sasoiko marabilen aberastasunez eta promesez beteriko
nolabaiteko ziurtasunaren hasiera.

Urte berri hau
kantu berri bat da,
heldu den nerabe bat
nerabetasunetik sortutako heldutasuna
ospatu beharreko sasoi da
une xarmangarrien egunsentia baita.

Gure bihotzak entzunez ere
zorion betea opa dizugu.

MAZEDONIA BETE HITZ
MAZEDONIA BETE POETA
POETA BAT MAZEDONIAN, MAZEDONIA POETARENGAN
POETA BAT MAZEDONIAN

MAKEDONIA

Mazedonia goxo bat prestatuko nizuke
hemengo bazarrean ikusiriko fruitu koloretsuekin
eta uda badoa,

uda bere azkenetan da
eta ni ene bizitzako udaren zain nago,
muxurik gabeko uda badoa...
baina seguru zaude
muxurik eman ez didazula?
Ziur?
Badira ezpainetan ez beste tokietan
ematen diren muxuak...
...gorputz osoa dut
zure muxuz beterik, ia gorputz osoa
begiraden muxua,
hatzen muxua,
oroitzen,gure ezpainek bat egin zutenean
Zilarrezko Itsasoko kresalaz inguraturik
neskatiko haren begiradapean?
Berriro galdetuko dizut:
Muxurik eman al didazu?
"gaur eta hemen" non ote zauden
galdetzen diot neure buruari,
baina agian edo beharbada
"bihar eta hor" egonen zara
eta ez zaitut ikusten,
"atzo eta han" nagoelako ni beharbada.

Ez dakit lagunik nonbait baden
ez dakit maitasunik dagoen:
Ahotsa goratzen dudanean
bakarrik sentitzen naiz...
...zurekin minaz hitz egin dezaket?
Ez dakit bihotz ergel honek
gehiegi sentitzen ote duen!
Ez dakit bizi zaren
ez dakit bide honek
inora eramango nauen!
Ez dakit
zure eguzkira eramanen nauen,
baina hemen nago... ene ilargian.
Ez dakit zergatik segitzen dudan poesia idazten
poesia idaztea sufritzea bada,
baina olerki hau idazterakoan
zurekin sentitzen naiz
Alejandro Magno eta Ama Teresaren aberri honetan.
Mazedonia koloretsu goxo bat prest izango duzu
itzultzen zarenerako, ene maite galdua...

Ilargi beterik gabeko gauetan

*maitasunezko kantuak idatzi ditut.
Bat-batean zu agertu zinen behinola,
eta ilargiz bete zenizkidan gauak,
maitasunezko hitzez eta muxuez
hitzeman zenidan Zilarrezko Itsasoaren uhinetan sakonduz
galdutako urrezko orrazia topatuko genuela elkarrekin.
Geroztik galdurik nabil
lotu gintuen maitasunezko kate ikusezina askatzen duen
argi hizki horren bila,
kearen gisa desagertzen den bizitzako une bakoitza
airean harrapatu nahian nabil
zure zinezko hitzen bat aurkituko dudalakoan,
Bitolan, edo zigarro puruaren eraztun bakoitzean
ametsetan.*

HERAKLEJA

Antzinako hiri mazedoniarrentz,
eta bidean hilerri handi batean sartzen naiz,
hilerrian kapera ortodoxo bat:
hantxe itxaroten ninduen Antoniok, *Little Toni* lagunentzat
eta kapera ortodoxoaz hitz egiten dit ingelesez bere azentu mazedoniarrekin:
*“politika is corrupted. Politika is nothing,
but heart and faith is the most important”*.

Greziarrek beretzat dute Mazedonia,
baina mazedoniarrek berezkoa dute Mazedonia,
BIHOTZEZ ETA FEDEZ.

Giroa bero dago Mazedonian,
hemendik gutxira erreferenduma egingo baita
Mazedonia hitza aldatzeko ala ez.
Bihotza bor-bor, edozein unetan eztanda egiteko zorian.

Burutazio horiekin sartzen naiz halako batean
Herakleja antzinako hiriaren hondakinetan:
Alejandro Handiaren aitak eratu zuen hiria K.a. IV mendean;
ez erromatarrek, ez greziarrek euren boterearekin,
baina Mazedoniako hiria bere gain sortu zen,
ez inoren menpe,

POLITIKAK EZ BAITU TOKIRIK
BIHOTZA ETA FEDEA DAGOEN TOKIAN.

Bihotza non, gorputza han,
gorputza hemen, bihotza dut han.
Politika gutxiago eta poetika gehiago,
gure txikitasunaren handitasuna erakusteko?

ZLATEN DAB

*üda hura jin gabe iragan da eta bihotza xangrinaturik, larrazkenean jin baledi berriro ere
üdazkena bat-batean bilaka leidin bedatsa, üdaberria: udazken on bat opa dizuet
denoi...*

URREZKO HARITZA

Hark xuxurlatzen dio xoriari
ezer ez egiteko, edateko bizitzaren arnotik,
gelditzeko eta itxaroteko udazkeneko fruituak,
udaberrian ereindakoa ez dela alferrik galduko.
Sop erreka ur-jauzian
ura hotz dagoela
bainatu da eta eguzkitan etzan.
Gero, isilik maitearengan pentsatzen du,
hura beste batekin badago ere, tamalez eta zoritxarrez,
xoria haritz harena da
eta isilpean kantatzen dio maite duela
harekin egin nahi lukeela habia...

BUKOBO

URKIDIAREN ITZALPEAN.

Piper gorrien herrixkan
egungoaz balia nadin,
itxarokizunak nire bidaide,
esperientziak bizkar-zorroan eta
aurrejuzkuak eskuko poltsan.
Piper gorrien herrixkan bukatu da eguna,
eta iragana segika,
afera da ez zekiela nola maitatu
eta horregatik utzi ninduela.

BOZA

Ilbeteko gauak egokiak dira
bihotzeko hutsunea poesiarekin betetzeko;
lainorik gabeko udazken beteko gauean
ilargi beteari so
mutu nago
ene boza aurkitzeko
Mazedoniako BOZA freskagarri tipiko hori
edan ondoren,
ene boza altxatzen dut behera:

- Udazken on!

üda
hura jin gabe iragan da
eta bihotza xangrinaturik,
larrazkenean jin baledi
berriro ere üdazkena
bat-batean bilaka leidin bedatsa, üda berria.

AIRE!

Bizitza ametsa ez da, GOAZEN amestera!
baina amets bat bezalakoa da,
begi-kliska bat da bizitza eta
aitzina egitea besterik ez dago
aurrera egiteko.
Itxarokizunak bidaide,
esperientziak bizkar-zorroan
eta aurrejuzkuak eskuko poltsan.

CMETKA.

KONTUA eskatu dugu
eta joan gara beste toki batera,
beste baten larruan bizitzera,
pantaila handiaren aitzinera,
ez baitiot gaurko egunari aurre egin nahi,
bihotza etsiturik eta nekaturik dut
kontua eskaturik
atera garenean jatetxetik
joan gara zinemaldira
beste erronka baten bila
pantaila barnean sartzera
eta egoera arrotz batean murgiltzera,
neure bizitzatik at
barnean bizitzeko aukera.

HVALA.

ESKERRIK ASKO. Eskerrik anitz. Mila esker.

Faltan dudan maite hura daramat beti nirekin,

faltan dudan maite hau oroitarazten baitit,

osorik nagoela, bizirik,

zentzumen osoz.

Ojala! Inshalla!

Hemen balego nirekin,

eta pasatu dugun eta ez dugun guztia elkarrekin

iragan dela eta hurrengo urratsa

sendoago emanen dugula

hitzemango balit.

Batera hegan eginez

mundu hau poetikoago eginez.

Fala faltan zaitudalako

besteekin egonik

oroitarazten baitidazu zenbat maite zaitudan

eta laster ez zaitudalako faltan izanen,

elkarrekin egonen garelako. Inshala! Amen!

Hala bedi...

JA SUM...

Ja sum Ainara.

NAIZ eta ez dut.

Naizena naiz

negar egiten duen olerkaria

itzuleraren zain dagoen emakume maitemindua,

egunen batean pozez kantari agertuko natzaizuna.

Ez egin negar esaten badizute, (keba, egizu behar beste)

itzuliko naizela hitzematzen badizute, (promises are shit)

egunen baten (guten morgen)

pozez kantari (ahí te quiero ver)

PERSONA.

Emakume edota gizon,

neska eta mutil,

batez ere PERTSONA naiz

hizkuntza orotan persona hau,

eta ez diot garrantzia handirik eman nahi

xehetasun hutsalei,

distantzia jartzea da onena

gu bion arteko distantzia murrizteko.

Bizitza ez baita amets bat,

baina bizitza amets bat bezalakoa da,

begi-kliska batez desagertzen dena,

eta erreala bada ere bizitzen dudan une hau

ez da ezer ikusten duena ondoan dudanak

nik ikusten ez badut.

Pertsona bat naiz

ene barneko aingeru eta deabru guztiekin.

VERO.

Merkatuan eskaintza zabala dago,
itsasoa arrainez beterik dago,
eta BERO murgildu naiz ene barneko itsasoaren desiretan.
Ama izateko aukera oraindik izan ez dugunok,
bidaiatzeko aukera dugu ama garela amesteko eta idazteko.
Ama izateko irrikan gaudenok ausardiaz jokatzeko
eskatzen diogu bikotekide koldarrari.
Merkatuko eskaintza zabalean galtzeko beldurrez
itotzen gara geure baitako maitasunezko itsasoan.
Eta bero esaten dizut zuri ez epeltzeko zure nahiak eta ametsak,
ez apaltzeko isil zaitezen erraten dizun haren aitzinean.
Burua hotz eta bihotza bero jokatzeko
bizitzaren oreka bilatzen saiatuz.

ZDRAVO.

OSASUNA, maitasuna eta dirua.
Horiek bizitzaren lehentasunak.
Osasunez jateko eta edateko bizi gara,
osasuntsu maita dezagun elkar.
Osasunez agurtzen dut egun berria goizero:
KAIXO!
Osasunez egin dezadan gauerainoko bidaia.
Osasuna omen da garrantzitsuena bizitzan,
baina zer litzateke osasuna maitasunik gabe?
Gaixotzea eta heriotza.

BELIMACE. *Constantin Belimace (July 1848–1932) was an Ottoman born Romanian and Yugoslav poet.*

MUNDU EDER HONEN GAINBEHERA, POETAREN ISILTASUNA

Gurasoek diote arbasoen bitartez

sute handiarekin deuseztatu zela

oro zen guztia.

Gu armadarik gabe gelditu gara

kemenik gabe ia

eta abertzale sutsuak izatetik

abertzale bizikidetuak

domestikatuak izater pasa gara.

Murmurioen hodeien baturak

euri-ura mikatza ekarri du:

arregura hazi egin da etxean

poetaren mihia urrun joan zen

eta bere hizkuntza zapaldurik,

Suak urre balio du;

eta guk eserlekua hartzen dugu

epel parlamentuan.

Poetaren mihi etsitua sutan jarri zen.

Arbasoen bihotzean dago

lehengo suaren sugarra

amatxiren mintzoa

ametsaren ametsetan datza gure esperantza.

Amaren amak egindako galtzerdiek
berotuko ahal dituzte gure oin biluziak!
Jaungoikoak eta Lege Zaharrak ihes egin dute
beste artalde bat zaintzera!
Poeta mutu gelditu da bere hilobian,
arbasoak hotz daude surik gabe sutondoan,
kondairak eta elezaharrak ahantzi baititugu
eta orain ez baitugu ezertan sinesten.

BLAGODARAN.

ESKERRIK ASKO,
eskerroneko naiz
eta nago aran hari begira.
Mendixka hartan badun ere
hire bihotza,
hago hemen, poeta!
Eskerroneko naiz bizitzari,
eskerrak ene maiteak
maite ninduelakoz hainbertze
nago hemen, beha,
zer kausian,
olerkien ehizan.
Eskerroneko naiz ene maiteari
maite dudalako hainbertze
idazten diot hari olerki hau.

SHIROK SOKAK.

KALE ZABALA.

Kalean gora, kalean behera

libreki goazela dirudi

klikiti-klakata takoidun zapatekin

nonahitik goazela gure arrastoaren antzirudi.

Kalean gora, kalean behera

libreki eta loturarik gabe goazela dirudi

zabal eta eskutik heldu gabe

jende artean, hiriaren erdian

noranahi goazela gure arrastoa uztean

ez naizela hain libre nabari dut,

sokarik ez katerik ez badago ere

hari ikusezin batek ez ote gaitu lotzen

nonahi gaudela ere?

KACA.

KAKA?

Loreak nonahi sortzen dira,
baina naturalenak eta maiteenak ditut
zaborretan, kakatan, jaiotzen diren horiek.

Belar-motzetan, lorategietan artifizialki
egunero ureztatutako eta zaindutako loreak
ez zaizkit natural egiten.

Miresten ditut zaborretan
ateratzen diren larrosak eta bioletak.

Poesia ere edonon aurki dezakegu,
baina ederrenak minetik sortzen diren horiek direla
askotan entzun dut,
eta bihotz zauritu honek,
kakatan eta putzutan ibili den honek ere
lore batzuk bota ditu,
naïve eta inuxente,
oraindik ere sufritzen segitzen dudalako
edo sufritzen segi nahi dudalako idazten dut poesia?
Poesia naïve al da, maitemindurik daudenentzako terapia
inori ere interesatzen ez zaizkion hitzak,
eta horregatik utzi behar diot poesia idazteari?

Emakume heldu bat naizenez gero,
prosa idazteari ekin beharko nioke?

Miresten ditut kakatan sortzen diren lore eder horiek
nahiz eta gehienen begiradetatik urrun egon,
gehienen arreta ez bereganatu.

MONASTIR.

Baso bat bilatzen genuen
MONASTEGIRA bidean, Bitola hirira alegia.
baina ez genuen galtzeko basorik nahi,
elkar aurkitzeko balioko ligukeena baizik,
bai gure buruak
bai historiak eta
bai memoriak
zapalgailu bezala
pasatako emakumeenak aurkitzeko.

KAKO.

Amatxi zenaren eltzetik dilindan

kakoa,

Oitzeko amatxi zenaren

erratzaren astinduaren astinduz

ongi eta garbi zaintzen zuen etxekoa,

Amaieurko amatxi zena bezalako gasnagilerik

ez dut oraino aurkitu, alajainkoa!

Kakorik ez ene sukaldean,

eta etxerik gabeko alaba zaharrena izaki

ez dut etxerik zaintzen,

ezta gasnarik egiten ere

baina noan tokira noala ere

ene arrastoa utziz munduan

zirenak zirelako naizela

ainara letren jostuna.

RAKIA.

BIZITZAREN ELIXIRRA.

Edan dezagun bizitzaren edabe magikotik
ase arte, agortu baino lehen
maitasunaren iturria.

Edan dezagun bizitzaren edabe magikotik
ase arte, denbora badoa etengabean
eta edan dezadan, mozkor nadin
dantza eta kanta
bizitza eten arte.

T'GA ZA JUG.

HEGOALDERANTZ.

Arranoaren hegalak banitu

hegaldatuko nintzateke

eta hegan egin gure kostaldetara,

gure ingurugirora

Istanbul ikustera, Kukux begiratzera

eta egunsentia ikustera:

Dismal hortik al da? Hemen al da?

Eguzkia oraindik altxatzen bada,

hemen ala han nirekin topo egiten badu,

bidai urrunagoetarako prestatuko naiz,

beste kostalde batzuetara lekualdatuko naiz,

egunsentiak argi eta garbi

agur egingo didan tokira

eta zeruak izarrekin keinu egingo didan lekura.

Ilun dago hemen, iluntasunak inguratu nau,

laino ilunak estaltzen du lurra;

hemen izotza, elurra eta hautsa besterik ez dago.

Lainoa edonon, lurra izozturik

eta bularraldean hotz dut,

pentsamendu ilunak ditut.

Ez, ezin dut hemen gelditu gehiago, ez,

ezin dut ikusi izotzatik haratago.

Emaizkidazue hegalak eta
hegan egingo dut
gure kostaldetara mugituko naiz
beste behin gure tokietara,
Ohrid-era edo Struga-ra.
Han eguzkiak arima epeltzen du,
ilunsentia gailur eguzkitsuetan agertzen da;
opariak oparo daude han
naturaren indarrak banatua.
Begira laku argia ia zuri
edo urdin ilundua haizeak,
begira lautaden edo mendien gainetik:

edertasunaren gorentasuna edonon.

Ene bihotz etsituaren alaigarri han hats hartzean!

Oi, eguzkia ezkuta dadila

eta ni hil nadila han!

(Konstantin Mladinov, poeta mazedoniarra, 1830-62)

LETO.

UDA joan da eta

uda gau bateko ametsa izan zen

Montebideoko maitasuna;

badirudi eguzkia makurtu zelarik,

ene maite bihoztuna bihozgabetu eta kikildu zela.

Amets egitea librea da

eta librea naiz amets egiten dudalarik.

Udazken gau honetan

amets egin nahi dut

ene maite bihoztuna agertzen zaidala

besoak zabalik,

eta berriro ere elkarrekin gaudela.

DRAGOR.

Herensugea lo dago. Edo hilik dagoen ere ez dakit.

Ibaiertzeko zuhaitzei hostoak erortzen zaizkie aldioro
eta ezin dute itzuli zuhaitzera, eta lurrera erortzen dira,
eta ezin dute goititu, ezin erori gora.

Orbel nabarra lurrean pilatzen da
eta herensugea lo ote dagoen ez dakit,
beharbada hilik dago eta horregatik ez da ohartzen
uda joan dela
eta nire bihotz zauritua bere suaz sendatu behar duela.

Herensugea beharbada lo dago
eta ibaiaren zurrumuruak
txorien txorrotxioak
beharbada piztuko du lo zegoen haurra.

Baina beharbada hilik dago herensugea
eta ibaiertzeko zuhaitzak biluzten ari dira ene aitzinean.

MED.

Medikuarengana ez joateko
diote EZTIA dela onena,
gaitz guztiak goxatzen omen ditu,
baita bihotzekoak ere.

Medikuak ba al daki
zer den bihozmina
eta ez bihotzeko mina?

Maitearekin orain egon nahi
eta ezina.

Udaminez nago udazkenaren atarian
uda joan da eta eguzkiak epel
baina desberdin laztantzen du azala
udazken-usaina dario haizeari,
eta udazken-laztanez egiten dit matte-matte haizeak,
eguzkiak.

Eguzkiak goxo laztantzen nau
eta nik goxo dastatzen dut giroa,
hartzak eztia milikatzen duen modu berean.

STRUGA.

AINGIRA luzearen atzetik

GURUTZEAREKIN topo egin dugu

gure pentsamendu ilunekin

eta sentimendu nahasiekin

HAIZEAK JOTZEN du goxo

eta batzuetan hotz

lakuaren ertzean

eta Venecia plazan esertzen gara

kafea hartzera egunsentian

ezer egiten hasi baino lehen.

Pablo Nerudaren kalean nago,

Venecia plazan,

eguzkitsu eta erromantiko,

egun luze honetan

bertsorik tristeena idatzi diezazuket,

beharbada ez zaitut maite

baina zenbat maite izan zaitudan,

hiri poetiko eta erromantiko honetan

zure oroimina dut, ene haritz bihoztuna...

zure minez nago...

beharbada ez zaitut maite, egia da,

zein laburra den maitasuna eta zein luzea ahaztura...

baina beharbada maite zaitut oraindik...

DRIM.

Dream. Ametsa.

Amets hutsa da bizitza,

poeta hark erran zuen

eta mundua, berriz, ilusioa.

Ametsa izan zen maitemintzea,

eta maite ninduela maitasuna egitea.

Anyway, the world is an illusion

and have a nice trip!

Onea opa dizut, ene maite,

onena ni banauzu ere,

egin ezazu nahi duzuna.

DRIM IBAIAN paseatzen

amestu dut maitearen eskutik helduta nenbilela

Dream, everything is dream

and the love is also a nice dream.

Bizitza dena den ibaiaren antzekoa da,

izan ametsa, ilusioa edo errealitatea,

iturri batetik itsasora goazen emaria gara

emanez batera, hustutzeko itxaropenarekin

itsasoratzen gara.

KALIXTA.

Gau honetan, beharbada,
maitasunezko olerkirik tristeena idatziko dizut
ez zaitudalako nirekin
hiri poetiko eta sakratu honetan.

Gau honetan, beharbada,
idatziko didazu berriro euskaraz
maite nauzula
gure zubia osatzeko.

Agian.

Beharbada?

Halabeharrez,

bestela hementxe

laku honetako munstroak

ainguratuko

hondoratuko nau.

KRUXEBO.

Utzi nahi baduzu, ene maite,

oroitu faltan zaitudala.

Ezer ez zen gertatu espero genuen bezala,

ezer ez da gertatzen espero dugun bezala,

etorkizuna geurea da

baina orainean ez zaude nirekin

eta kafe bete kikara eskatu dut

esne apur batekin

azukrea bota diot

eta agur esan dizut gaur gauean ere

bihar goizean “egun on, maite” batekin

esnatuko nauzun itxaropenarekin;

izan ere, mundua ilusio bat da

eta bizitza ametsaren gisakoa

begi-kliska bat

eta ohartzerako faltan zaitut

faltan ditut zure musuak;

izan ere, zein ongi musukatzen zenizkidan ezpainak

horretarako jaio izan bazina bezala!

Faltan zaitut

maite zaitut, ene haritz bihoztuna.

MAKEDONUM.

In this world... for this world...

Mundu honetan

idazten ari naiz poesia,

idazten mundu hau.

MAZEDONIAKO IRAULTZA

lehertu zen herrixkan nago,

Mazedoniako nazioa libre da orain

eta nik mundu honi argazkia atera diot,

bakarra den mundu anitz honi idazten diot,

denok bat garen honetan,

baina neure nortasun bereizitik

batzuetan ukatua,

bertzetan isildua

eta albaniarra ala mazedoniarra ote zen galdetzen diot ene buruari,

baina Ama Teresaren hitzak plagiatzen ditut orain nik:

Ez naiz inorena,

baina sinesten dut jendearengan,

jainkoarengan,

kristoren sakrifizioarengan

eta Maitasuna dut gizatasunarentzat

gizaki ororentzat.

Baina Irunen sortua naiz
eta beti izango dut Irungo hiritartasuna
muga eta erlijio ororen gainetik
euskalduna naiz.

Mundu honetan
mundu honetatik edanez
mundu honi idazten diot.

URA.

Mazedonieraz MOCT.

Euskaraz ZUBIA da

albanieraz URA dena.

Ura da ene bizi-iturria;

hura da ene bihotzeko maitea.

Hark erran zidan eta gonbidatu

zubi bat egitera

maitasunezko bizi-urak elika gintzan egunero.

Horretarako hitzak ontsa hauta besterik ez genuen

baina ez dakit zer gertatu zen,

nahiz eta nik maitasunezko eskutitzak eta olerkiak idatzi

ez dakit zergatik ez zion eutsi gure maitasunari,

gure zubiak betiko xut iraun zezan. BIZI.

Ura da albanieraz,

euskaraz zubia dena

eta ura da

hura eta ni arteko zubi.

PEPERUTKA.

PINPILINPAUXA.

Erdi-hilik ala erdi-bizirik

karrikaren erdian

udazken ukatu

udatu honetan

haize leunak ozta-ozta mugitzen dituen

hego horixkei begira gelditu naiz

pausatu naiz

etengabea doan bizitza honetan.

Bitolsko bat, mesedez,

bizitza ospatzeko

segundo oro hiltzen garen honetan,

minutuoro berpizten garen honetan.

ZMEJ.

KOMETA. DRAGOIA.

Berriro ere herensugea agertu zait.

Haurtzaroan ez nuen inoiz kometarik egin
ez kometekin jolastu ere;
beste jolas batzuk genituen.

Haurtzarora eraman nau hegan kometak
nik neuk egindakoak
eta dena argi ikusi dut:
helduen maitasuna ez da justua, ez da argia,
beti baitaude interesak tartean.

IT'S NOT FAIR LOVE

IT'S NOT FAIR THE WORLD

eta bizitzen gara argitzeko
haur-begiradaz mundua, ikuspegia.

Haurraren begiradaz begiratu diot inuxente eta xalo
hegan egiten zuen bihoztun kometa txiki ameslariari.

42 urtekin deskubritzen dut
bizitu ez nuen haurtzaroaren zati bat
eta ez nago nostalgiko
gauza berria delako.

42 urtekin bizitza birplanteatzen ari naiz,
gauzak birpentsatzen,
bizitzaren kolpeek higatu baitute nigan baikortasuna,
baina egunero gauzen alde ona begiratzen ikasten ari naiz
haur-begiradaz.

MEZE.

Hain ederra zen

zuk niganako zenuen maitasuna!

Mundu honetan

itxaro dudan bakarra

zu zarela,

behar zaitut zu

bizitza honetan aurrera egiteko.

Hain ederra da

nik zukanako dudan maitasuna!

Otoitz egiten dut tabernako MEZAN

zuregatik eta nigatik

gugatik;

badakit ez dudala diru askorik

baina izanen banu

etxe bat erosiko nuke biok bizitzeko bertan,

badakit ez dudala askorik eskaintzeko zuri

nire maitasun mugagabe hau baizik,

eta olerki hau.

Olerki hau zuretzako da

galdu zintudan horrentzako

mundu hau zoragarria da

zu bertan zaudelarik

eta olerki hau zurea da, ene maite.

KAMEN.

Inori men egiten ez dion herria,
lur honetan irauten duen HARRIA
kemen.

Gizon handiek
eskura dituzten harriekin
eraso egin zioten etsaiari.
Emakume ausartek
borrokatu zuten
herri honen alde
independentzia lortzeko
kemengo (hemengo) harrizko herri honek
euskal harriak bezala
iraunen du zutik.

KOZARA.

BADA DENBORA MAITE ZAITUDALA

INOIZ EZ ZAITUT AHAZTUKO.

Etxean itxaroten gelditu

eta betiko neska alargun ezkongabearen

maitasunezko hitz etsituak horiek.

Etzetik urrundu zen mutila

borrokara, Kozara aldera

eta han sekulako gudu-zelaia izan zen

bigarren mundu gerran

Jugoslabia askatzeko.

Bitartean, etxean gelditu

eta betiko neska alargun ezkongabearen

maitasunezko hitz mutuak dira horiek.

BADA DENBORA MAITE ZAITUDALA

EZ DUT INONGO ABERRIRIK MAITE

BAINA ZU MAITE ZAITUT

ETA EZ ZAITUT INOIZ AHAZTUKO.

Ur garbiko iturrira

joan nintzen,

ura hain zegoen eder,

bainatu bainintzen.

BADA DENBORA MAITE ZAITUDALA.

INOIZ EZ ZAITUT AHAZTUKO.

Gaztainondo baten azpian

lehortu naiz,

aldaxkarik gorenean,

errexinola kantari.

BADA DENBORA MAITE ZAITUDALA.

INOIZ EZ ZAITUT AHAZTUKO.

Kanta, xori errexinola, kanta

zuk bihotza pozik duzunez

bihotza barrezka duzunez

nik negarrez dudanez gero.

BADA DENBORA MAITE ZAITUDALA.

INOIZ EZ ZAITUT AHAZTUKO.

Nire laguna galdu dut

merezi izan gabe

hartu nahi izan ez nituen

larrosa-sorta bategatik.

BADA DENBORA MAITE ZAITUDALA.

INOIZ EZ ZAITUT AHAZTUKO.

Nahi izango nukeen larrosa

larrosaondo bilakatzea,

eta nire lagun maiteak

oraindik maitatuko banindu.

SLOBODA.

ASKATASUNA

Ai poeta,

zein zaila izanen den zuretzat

askatasuna!

Hori irakurri nion behin

Xabier Leteri.

Izan ere, niretzat baliorik gorenena

maitasuna da

eta hori gabe

askatasuna hotz eta tristea da.

Ai poeta,

herriaren askatasuna duzu amets,

baina zeurea ez duzu nahi,

ez baituzu bakarrik eta hotz gelditu nahi.

Askatasunarengatik

milaka bihotz gelditu ziren gudu-zelaian

maitasunik eman gabe

eta maitasunezko eskutitzik idatzi gabe.

Ai herria,

zein zaila izanen den zuretzat

maitasuna

askatasuna lortuta ere!

BURE.

KUPELA.

Sagardoaren hotela.

Garagardoaren ostatuan

nago,

kupelari so.

Ene gorputza hustu da

ilargia bete den neurri berean.

Ene gorputza hutsik dago

eta bihotza beteta sentimenduz eta esperientziz.

Kupelari so

galdegin diot ene buruari:

beteta al dago?

Kupela hitsik dagoela

sentitzen dut,

ene maitearengandik ez hain urrun

ilargi betea biok ikusten baitugu

nonahi gaudela ere

banandurik gaudela ere.

Kupela hitsa egotea da poesia;

poesia inoiz elkartuko ez liratekeen bi hitz elkartzea da

misterioa osatzeko.

Misterio hori poesia-irakurleak ebatzi behar du.

Kupela egon al daiteke hitsa, nahiz eta hutsik ez egon?

MOCT.

Moztu eta berriro ekin.

Ilbetearen soka luzea

argia da

baina mingarria.

Zauri sakonak eragiten ditu

hilen argiak

eta hildakoak askatu behar ditugu

gu aske bizi gaitezen.

ZUBIAk eraiki dira

harremanak mantentzeko

eta xut sendo irauteko,

ez mozteko.

PELISTER.

Mendian goiti abiatzen gara

beheko errealitate gordinetik ihes egiteko.

Mendian lasterka,

beste batzuetan oinez,

eta batzuetan goi-mendietako laku hotzari so

maite galduarengan pentsatzen.

Mendian lasterka

iritsi naiz azkenean, PELISTERKA!

Hantxe dago: 2600m errealitate gordinetik gora.

Ene ametsekin egin dut topo:

nahi nuke ama izan

ene maite galduarekin;

nahi nuke galdutako lamiaren urrezko orrazia

aurkitzen lagunduko balit;

nahi nuke...

eta bat-batean jaitsiera gogorra berriro errealitatera,

hirira.

SRCE.

BIHOTZA

Disfuntzioa

funtzio falta besterik ez da.

Eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Disfuntzioa bizio bat da,

anomalia,

ezgaitasuna,

indargabetasuna,

trauma,

agonia ...

Bat-batean agertzen den osasun-arazoa da

eta bizitza aldatzen da,

eguneroko bizitzako arazo nagusiak:

familia arruntaren irudia lausotzen da,

umearen trauma agertzen da

eta haurraren eguneroko gabeziak agertzen dira.

Pertsona batzuk zertxobait aldatu dira

eta metaforikoki traizio egiten dute;

beste batzuek nahi luketen bizitza antzezten dute

funtsean aldatu gabe.

Disfuntzioa gure bihotzetan dago,

mundu honen eszenatokian.

Eta gure artean ez dago sekreturik,

denok baikara ikusle eta antzezle aldi berean

antzeztoki erraldoia den mundu honetan.

Guztia gardena da. Zintzotasunezko mina.

Ongi etorri nire poesiara!

PRILEP.

Garardoaren eta tabakoaren hirian,

hatsa kentzeko moduko paisaia, zinez!

Markovi Kuli UNESCOren ondasunean

barneraturik,

natur parke zabalean zehar

ibilian eta ibilian

eta begiak zabal-zabalik,

monastegirantz aurrera;

hala ere, Euskal Herriko mendietako

berdea eta hezetasuna behar dut

hatsa hartzeko,

berde horrek ematen baitit bizitza,

kolore nabar eta idor honek kentzen didan hatsa.

Hala ere, lur idor eta marroi honi

harkaitz ikaragarritz betetako mendi hauei

eskaintzen diet ene bizitza, hatsa, poesia

une batez.

Treskavec monastegian

tradizio erlijiosoari jarraituz,

Jainkoaren Amari kandela bat piztu

eta erregutu diot ene maite galdua ager dadin

eta haurdun gera nadin.

DRUGIZBOROVI.

Hitzak baino gehiago,

maitasuna.

Maite zaitut soilik

ateratzen zait.

Hain eder eta galant zara

haritz mardul baten gisa.

Behar zaitut.

Ene bihotzak behar ditu

zure benetako maitasunezko euskal hitzak.

BESTE HITZ horiek behar ditut.

JUGOESLABIA.

Lurralde eslabiarra zabala da,
iparraldetik hegoaldera
mendebaldetik ekialdera,
ez du mugarik gure Europa zahar honetan;
hizkuntza eslabiarrak anitzak dira,
eta nola jarri muga Europari?
Lurralde eslabiarren hegoaldean
bada balkanetako jendea, mendietako jendea;
basoetako jendearen gisa

deskribatu gintuen Strabok ere behin
euskaldunok,
ezin baitzuen eskuararik konpreni
basoetan bizi zen jende haien ahotan,
eta basoko jendea ginen harentzako
basati eta natural
basoko,
basko.

Nik ere ezin baititut guztiz konpreni
balkanetako, mendietako jende hau
eremu eslabiarreko hegoaldean
jugoelabian,
hegoaldeko eslabian.

SARMA.

XARMA berezia du enetzat

pintxoen tabernak,

hantxe sartu naiz

bertako sukaldaria

atsegina delako.

Urrezko haritzaren ondoan eseri naiz

eta dudana ahogozatzen saiatzen ari naiz

nahi dudana lortu arte.

Xarma da mahats edo kalabaza hostoz

bildutako arroza,

xarma berezia du enetzat

pintxoen tabernak,

maitasunez sukaldatzen duten tokia

eta nik maite dut bizi naizen toki hau,

bi bihotzen arteko zubia.

Ozeanoaren bi itsasertzak lotzen dituen zubia,

alde bateko eta berteko bihotzen indarrez.

KUKU.

Ene sorgin maitagarri hori,
omen dun urria sorginon hila.

Zapo begiak, xakel zangoak, izan zorte on aste osoan!
Saguzar hegoak, zizare isats, zoriontsu izan gaur eta bihar!
Herensuge adar, inork ez diezanan inoiz bihotza ihar!
Erratz ziri, erratz handi, urtetik urtera politago izan hadi!
Laratz txiki, laratz handi, emadan sos ugari!

Urria pasatu dun,
eta hemen ere Halloween ospatu nahi ditene

globalizazioaren indarrez,

lokalizazioa ahulduz,

halabeharrez zer ikusi, hura ikasi.

Ni, berriz, kukuka jolasten ari naun

GORDEKA HAUR-JOLASEAN

isil-gordeka alde batetik bertzera

mundutik ihes egin nahian

jende artean nahasten naun.

ZAR SAMOIL.

Bulgariako tsarraren karrikan

bizi naiz,

ahalguztiduna sentitzen naiz

idazten dudalarik,

eta Bulgariako tsarraren karrikatik

Prilep haren sorteria gomutan

X.mendean kokatu dut ene burua.

Bulgariako tsarraren garaian

ezdeus sentitzen naiz

horrenbesteko erdiaroko inperioaren erdian

eta orduan,

XXI.mendera itzuli naiz.

Gaur egungo globalizazioan galtzen naiz

eta ezdeus sentitzen naiz,

idazten dudalarik ere,

nahiz eta eguzkia Prilepeko mendiaren atzealdean sartzen ikusi,

inoiz ez nuen pentsatuko Bulgariako profeta eta tsarra

Inperio bizantiar eta erromatarra baino indartsuagoa izan zitekeenik

eta eguzkia lurrera erortzen delarik

bere urrezko zalgurdian,

Zesarren arima handiari honako hau kontatzen dio:

Danubioak (Bulgariak) hartzen du beretzako

Erromako koroa.

PELLA.

Amaren malko batek hamar mila gutun ezaba ditzake.

Mazedoniako antzinako hiriburuan barneratu naiz,

Alejandro Handiaren sorterrian

eta haren aita Filipe II handiak muxu eman zion

zalditik jaitsi zelarik eta esan:

Ene haurra, merezi duzun erreinua eska ezazu

Mazedonia ez baita nahikoa zuretzat.

Aristoteles izan zuen irakasle gaztetan

eta zera ohartarazi zion behin:

Greziarren artean lider baten gisa jokatu

eta barbaroen aurrean konkistatzaile baten gisa.

Alejandro Handiaren harrotasunak

Jainkoak gainditu nahi zituen:

Zeus, Olimpus mendia ukan dezakezu;

nik lurra ukanen dut.

Gerlaria izateaz gain,

bere ondarean hainbat eskultura, margo, eskutitz daude.

Amaren malko batek hamar mila gutun ezaba ditzake.

THESSALONIKI.

Hego-Mazedoniako hiriburua gaur egun

Grezia da, baina sentimenduak, hizkuntza eta kultura bera da

nahiz eta bandera ezberdinengatik

egunero jaiki eta gauero oheratu;

ene bihotzeko hiriburua zeu zara, ene maite,

besteok ere sentimenduak dituzue

ez nik soilik

eta horiei aukera eman behar dizuet,

egoista ez izan.

Badakit hori,

baina min hartzen dut

eta gogorra da ene maiterik gabe bizitzea

bere egin ninduenez geroztik.

ALFA.

Alfa lehen letra.

Hasiera ere bukaera da,

hasten den oro amaitzen da

gaurko denbora eta iragan denbora

 beharbada biak dira gaur etorkizunean,

 eta etorkizuneko denborak bere barnean du

 iragan denbora.

Denbora oro betiereko oraina bada,

 denbora oro erosi ezina da.

Gaur da beti.

Alfabetoaren hasieratik

 Omegaraino,

bizitzatik heriotzaraino,

gaur da

 bihar etzi atzo.

OHRID.

ARGIAREN HIRIA.

350 eliza daude

eta mendixkaren gainean

erdiaroko gotorlekua

hiriaren gune sakratua zaintzeko:

3 erlijioen gune sakratuan

gurutze santua eta esbastika

betierekotasunaren eta zorionaren sinbolo.

Eta gune sakratuaren erdian

Ohrid-eko San Klementeren hilobia

mirarien egilea.

Mirari bat eskatu dut

eta betetzen bada,

Peska ene gida turistiko partikularrari

andere jakitun eta xarmantari

eskerrak emango dizkiot

San Klementeren mirarien berri emateagatik.

350 elizen hiria,

hiri sakratua, Ohrid

grekeraz Lychnidus, argiaren hiria

bekatuak garbitzeko

gune sakratua.

San Jovan elizatik

Ohrid lakuaren ikuspegirik ederrena dago

eta bertan argazkia atera dut ene buruan.

Lakuaren ikuspuntu ederrenetik

San Naum ikusten da

eta mendiaren bestaldean

Prespa laku mitikoa,

Ohrid lakuaren maila baino gorago dago

eta Prespak elikatzen du urez

Orhid gardena, garbia.

Zerua eta lurra bereizten ez den puntua,

historia eta mitologia nahasten den puntua,

lakua, hodeiertz ikusezina.

Argiaren hiria ez da Paris;

Ohrid da.

Orhiko xoriak Orhira nahi

eta Orhid-en agertu naiz,

bat-batean Mazedoniaren bihotz epelean,

ur gardenaren isladan.

Ni.

Zu.

Gu.

Argiaren hiria ez da Paris;

Ohrid da.

Ur gardeneko gune sakratu garbitzailea,

San Klement Ohrid-ekoa

mirarien egilea.

PLAOSNIK.

PURIFIKAZIOAREN TOKIA.

Mirarien gune sakratuan

mirari bat gauza dadin eskatu dut

Ohrid-eko San Klementeren hilobiaren aitzinean

fedo osoz.

Ene fede osoa jarri dut

maitasunaren zubia konpondu eta indar dadin

eta haurdun gera nadin.

Ohrid lakuaren ikuspegi ederrena dut aitzinean

arrantzaleen etxeen gainean

gotorlekuaren azpian.

Herrira jaitsi naiz

eta kafe bat hartu dut,

kafeak bizitza inspiratzen dit

kafeak bizitzatik hartzen du.

STOBI.

...Stobis, vetus urbs..."

as the Roman historian Livy named it,

at the confluence of rivers Crna and Vardar, was the largest city in the northern part of the Roman province Macedonia, later capital city of the Roman province Macedonia Secunda, an important urban, military, administrative, trade and religious center of two large empires: Roman and Early Byzantine

...Stobis, vetus urbs..."

STOBI, HIRI ZAHAR BAT

ardo edanda mozkortzen naiz,

pipa erreta txoratzen naiz,

kortejatzean lotsatzen naiz

nola demontre biziko naiz?

Baina zaharra ez da izandakoa

luzaroan dena baizik,

eta iragana ez dago hilik.

Iragana eta oraina bera ere

etorkizunean baitaude.

SFEST.

JAIALDIZ jaialdi

eta festarik festa

ibili gara inspirazio bila

Mazedonian murgiltzera.

Kafeak inspiratzen nau

zubipean

zubipeko taberna artistikoan

eta idazten hasi naiz poesia;

izan ere, Shakespearek arrazoi:

TO WRITE OR NOT TO BE

Idatzi edo ez izan

hori da bizitzaren funtsa!

Idatzi edo ez izan

ez dut beste biderik

aitzina egiteko

zuri idaztea

orri zuri batean

zuk edukiz betetzeko zain.

BENERA.

Udazken hoztu honetan

behera behar honetan

ARTIZARRA da gaueko ene iparra

bihotza ene bizitzaren gidaria

eta zugana eraman ninduen

gure bizitzak gurutzatu ziren;

gizon galant eta bihozgabe batekin

maitemindu nintzen

materialista eta berekoia.

Hark erortzen utzi ninduen

eta min hartu nuen.

Orduan zu agertu zinen,

zu ikusi zintudan

eta zu zinela bakarra ikusi nuen,

eta zure bihotzeko maitasunezko hitzek

benetako maitasunean berriro ere sinestera

eraman ninduten.

Ez ditut nahi besarkada merkerik ezta irri faltsurik ere;

zuga dagoen egia jakin nahi dut.

Zure perfekzioaren inperfekzioa maite dut

udaberrian loratzen diren larrosak perfektuak dirudite

baina inperfektuak dira petaloak denborarekin galtzen dituztelako

hala ere bere funtsa barnean dute.

Denbora gelditu zitzaidan zure zain

eta zure zain segitzen dut.

Benetako maitasunaren garaia iritsi da

eta zatoz,

hartu sakon arnas

hegoak astindu

zure abestia kantatu

Ez zara beste gizonak bezalakoa

Iratzarri

aurkitu zeure burua zure sakonean.

PRIATOR.

IKUSI ARTE.

Badakit berriro elkartuko garela.

Zergatik idatzi behar behar dut

zuri buruzko abesti triste bat?

Dibertigarria eta atsegina zinen;

zoriona bera zinen;

zure irribarreak boterea zuen,

izpiliku-lorez betetako eskuak,

mugarik gabe

besteokin elkarbanatzen zenuen

eta besteak zaintzen zenituen.

Zure bibrazio positiboak irribarre eginarazten berriro ere.

Lagun bat galdu nuen,

arima bikia galdu,

maitalerik onena,

eta fedeak betetzen ditu

ene egun bakartiak,

bide hautsi hauetan zehar.

Oroitzapenak soilik gibelera eginarazten didate,

eta lagun bat galdu nuelako

badakit berriro ere elkartuko garela.

Jainkoak soilik daki!

Eta horregatik ez naiz gehiago tristetuko.

Zure aingeruak gidatuko nau

eta erakutsiko bide zuzena.

Zeruan bakea eta maitasuna berriro aurkituz,

musikariz, margolariz, poetaz eta bertsolariz beteta dago.

Zu zara ene ametsa egunetik egunera

beste aldean elkartuko gara.

Badakit berriro ere elkartuko garela,

jainkoak soilik daki!

Eta horregatik pena guztiak kanporatzen ditut.

Negar gehiago ez egiten

saiatuko naiz,

zure arima betiko egongo da nigan

ez baitzara hil,

eta beti elkarrekin egongo gara,

ez adiorik!

PRIATOR.

IKUSI ARTE.

Itzuleran kafea gure indarra da

gure erritua

gure pasioa

gidatzen gaitu

eta inspiratu.

zein azkar pasatzen den denbora! ...

eta nik ez dut batere gogorik

euskaraldian ezta herri-galdeketa murgiltzeko...

ene bihotzak zoriontsu izan nahi du soilik, bere maitearekin...

ene maite galduarekin denbora galdua bezala...

hemen nago "amodioaren hiriburuan"...

Mazedoniako "argiaren hiritik" iritsi berria...

malenkoniatsu, arrats behera honetan...

hausnarketan

hegazkinaren zain.

Maitearen zain.

Itxarongelan.